

Potentzia elektronikoari buruzko hitzaldia Garaia campusean

2009/06/03



Maiatzaren 29an, M. Malinowski-
k(<http://www.isep.pw.edu.pl/ICG/english/people/mmalinowski.html>) irakasleak
Garaia campusean eman zuen hitzaldiak izugarritzko arrakasta izan
zuen ikasle eta enpresetako langileen partehartzeari dagokionez.
Hitzaldia **"Sensorless Control Strategies for Three-Phase PWM
Rectifiers"** buruz izan zen.

Malinowski irakaslea Mondragon Unibertsitatean egonaldi batean dago
unibertsitateko Energia Elektroniko taldearekin. Potentzia Elektronikoan
esperientzia zabala du eta arlo honekin lotuta dauden batzorde eta
elkarte askoren partaidea da.

Bere egonaldiaren helburuak, hitzaldia emateaz gain, honakoak dira:

- Mondragon Unibertsitatean Warsaw University of Technologytik trukean etorri diren ikasleen egoera gainbegiratzea.
- Mondragon Unibertsitatea eta inguruko enpresetan lana nola egiten den zuzenean ezagutu.
- Arrasate eta Varsoviaren artean dauden lankidetzeta proiektuei jarraipena eman.